

Asisko gutuna

2022ko abendua

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

170. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Zein ederra den dena konponduta eta bakean bizitzea. Baina hori ezinezkoa denean? Nahi ez badugu ere, beti daramatzagu geure buruarekin konpondu gabeko gatazkak, eta zauriak uzten dizkigutenak gainera. Zer egin horiekin eta nola?

Gogoetarako gaia

Gatazkak neure buruarekin

Zergatik gure bizitzako garai gutxi batzuetan, besterik ez, esan dezakegu ez daukagula geure buruarekin gatazkarik? Gehienetan ez dira arazo handiak izaten, baina beti izaten da bakea urratzen digun arazoren bat: zauri mingarri gisa bizi dudana harreman zail edo hautsirenen bat, gustukoa ez dudana eta saihestu ezineko zerbait, niretzako sufrimen iturri gertatzen ari zaidan inguruko edo familiarako egoeraren bat inork konturatu ez arren, egin dudana eta bueltarik ez duen kalteren bat... Pertsona batzuk itxuraz zoriontsu bizi dira, beti beren buruarekin pozik egongo balira bezala, ezer ilunik gabe; baina sarritan ihesbide hutsa izaten da itxura hori barruko deabrueri aurre ez egitearren; biziraun ahal izateko.

Normalean, bizitzak deseroso egiten gaituen horri biderik egokiena bilatzen saiatzen gara. Konponbide batzuk aplikatzen ditugu, oinaze-egoerei irteerak bilatzen dizkiegu, arazoei borondate onenaz heltzen diegu, etab. Kasu askotan, korapiloak askatu egiten dira eta bizitzak guk nahi dugun bakea hartzen du

berriro. Hala ere, beste kasu askotan ez gara irtenbidea aurkitzeko gai eta arazoa kroniko bihurtzen da. Zer egin?

Bi muturren artean mugitzen gara. Alde batetik, gure muga eta bekatuaren kontzientzia dago. Geure buruarekin garbi jokatzeko umilak izaten irakasten digu. Beste alde batetik, Jainkoaren errukiarekiko konfiantza dago, gure gabezia gaindiezinen gainetik. Horrek Berari oso eskertuta bizitzera gonbidatzen gaitu. Honetan dago kakoa: nigandik espero dudana lorpen altuenean jartzen dut biziaren funtsa ala fedetik Jainkoaren dudana konfiantza. Bi joera hauen artean mugitzen naiz. Ea ikasten dudana arduraz bizitzen nire barruko gatazkei irtenbidea bilatuz, baina jakinda nire bizi iturria Jainkoaren errukian dagoela. Ez suminduta esperotako maila ez emategatik, ez eta ere espiritualismoaren izenean ahalegindu gabe geratuz. Azken finean, ea errukiak epaia garaitzen duen.

Bibliako pasartea: Rm 7,14-25

Jakin badakigu legea espirituaren arlokoa dena; ni, berriz, gizon ahula naiz, bekatuari saldua. Ez dut neure jokabidea ulertzen, nahi dudana ez baitut egiten, eta gorroto dudana, huraxe dut egiten. Baina egiten dudana gogoz kontra egiten badut, horrekin legea ona dela aitortzen dut; baina, orduan, egiten duena ez naiz ni, niregan ari den bekatua baizik. Ongi ikusten dut ez dagoela niregan –nire giza grinetan, alegia– ezer onik, nire esku baitago on egin nahi izatea, baina ez on egitea. Nahi dudana ongia ez dut egiten, eta nahi ez dudana gaizkia egiten dut. Nahi ez dudana egiten badut, ordea, ez dut nik egiten, niregan ari den bekatuak baizik. Beraz, lege hau sumatzen dut neuregan: ongia egin nahi dudalarik, gaizkia bakarrik dudala neure esku. Neure barruan atsegin zait Jainkoaren legea; baina neure gorputzean beste lege bat ikusten dut, nire adimenaren legeari borroka egiten diona, eta niregan ari den bekatuaren lege horrek preso hartua nauka. Ene zoritxarra! Nork askatuko nau heriotzara naraman nire izaera honetatik? Jainkoak, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Eskerrak berari!

Honela bada, adimenaren aldetik Jainkoaren legea dut zerbitzatzen; gizon ahul naizen aldetik, berriz, bekatuaren legea.

Frantziskotar espiritualtasuna

Garai berean, Frantzisko dohatsua Santa Marian bizi zela, espirituko tentaldi guztiz larria etorri zitzaion, bere arimaren probetxurako. Hain zegoen atsekabetua espirituz eta gorputzez, non zenbaitetan alde egiten baitzuen anaiartetik, ezin baitzen, ohi bezala, alai azaldu anaien aurrean, tentaldi hura zela eta. Gogor egiten zion bere buruari, jateari ez ezik, hitz egiteari ere utziz; sarri joaten zen otoitz egitera eliza ondoko basora: han bere samina hobeto hustu eta Jaunaren aurrean malkoak ugariago isur zitzakeen, dena dezakeen Jaunak larrialdi handi hartan zerutik sendabidea bidal ziezaion.

Bi urtetik gora tentaldi hark gau eta egun atsekabetua egon ondoren, egun batez, Santa Maria elizan otoitzean ari zela, Ebanjelio santuko hitzok entzun zituen bere barnean: *Fedea bazenu, mostaza-bazia bezain txikia izanik ere, mendi boni "aldatu hemendik hara" esanez gero, aldatu egingo litzateke.* Frantzisko santuak erantzun zuen: «Zein da mendi hori?» Erantzun zitzaion: «Mendi hori zure tentaldia da». Frantziskok, orduan: «Jauna, gerta bekit zuk esan bezala». Eta une berean libre gelditu zen, inoiz halako tentaldirik izan ez balu bezala. (PerLe63)

Otoitza

Gure proiektuak erori eta porrot egiten dutelako eta arrakastak ez gaituelako asetzen guk nahi bezala.

Maitasunik handienak bakardade-hutsuneak uzten dituelako, gure begiradek ez dutelako hesirik hausten, maitatu nahirik elkar zauritzen dugulako, gure hauskortasunarekin etengabe talka egiten dugulako, gure utopiak kartoizkoak direlako eta esnatzean gure ametsak lurrun bihurtzen direlako.

Gure osasunak ahalguztidun izan nahiaren gezurrak deskubritzen dituelako eta heriotza erantzunik gabeko galdera delako. Mina lagun mingotsa delako eta tristura itzal bat iluntasunean.

Egarri honek ez duelako iturririk aurkitzen eta gatz zurrupatuz engainatzen garelako... Azkenean, sustraian, sakonean, Zu bakarrik zaitut. Zure Ametsak bakarrik uzten dit begiak irekitzen. Zure begiradak bakarrik laztantzen du nire izatea, Zure maitasunak bakarrik uzten nau lasai, Zugan bakarrik du atsedean nire ahuleziak.

Gutuneko azken hitzak

Egizu zuregan dena eta utzi zuk niri eta ez kezkatu ezeregatik. (Santa Teresa Jesusena)

2022ko abenduko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Mt 7, 21.24-27	8 Lk 1, 26-38	15 Lk 7, 24-30	22 Lk 1, 46-56	29 Lk 2, 22-35
2 Mt 9, 27-31	9 Mt 11, 16-19	16 Jn 5, 33-36	23 Lk 1, 57-66	30 Mt 2, 13-15.19-23
3 Mt 9, 35-10, 1.6-8	10 Mt 17, 10-13	17 Mt 1, 1-17	24 Lk 1, 67-79	31 Jn 1, 1-18
4 Mt 3, 1-12	11 Mt 11, 2-11	18 Mt 1, 18-24	25 Jn 1, 1-5.9-14	
5 Lk 5,17-26	12 Mt 21, 23-27	19 Lk 1, 5-25	26 Mt 10, 17-22	
6 Mt 18, 12-14	13 Mt 21, 28-32	20 Lk 1, 26-38	27 Jn 20, 2-8	
7 Mt 11,28-30	14 Lk 7,19-23	21 Lk 1, 39-45	28 Mt 2,13-18	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Abenduko otoitza hilaren
29ean izango da.